



Esp. kodea: 2020AAAA0008

Gaia: UDAL ZERBITZUEN IREKIERARAKO PROTOKOLOA COVID19 DELAKOAREN ONDOREN

## KIROLDEGIA ERABILTZeko IRIZPIDEAK

### 1. **LANGILEEN JARDUNERAKO NEURRIAK:**

Edozeinek edozein sintoma duela uste badu edota berarekin hartu-eman zuzena izan duen familiar edota lagunaren batek positiboa eman badu, lanean abisatu eta etxean geratu eta osasun zerbitzuek esandakoa egin.

- Eskuak sarritan garbitu, batez ere gauzak elkar banatzen ditugunean. Horretarako langile bakoitzak gel hidro-alkoholiko pote bat izango dugu, lanerako eta lanean, norberarena izango dena.
- Zuen lan ingurua ondo aireztatuta izan osasun gomendioei kasu eginez.

**1'5 metro**



- Gure arteko hartu emanetan:
  - o Distantziak mantendu.
- Maskara erabili:

#### **Maskaren erabileran inguruko azken araudia: EHA 2020-07-17//2784**

1.3.– Maskarak erabiltzeko derrigortasuna.

1.3.1.– Pertsonen arteko tartea edozein dela ere, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan, bai erabilera publikoko gune itxietan edo jendearentzat irekita dauden lekuetan, eta espazio berean beste pertsona batzuekin elkartu daitekeenean. Salbuespen izango dira agindu honetan aurreikusitako kasuak, bai eta COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuak ere.

...

1.3.4.– Derrigor maskara behar bezala erabili behar da, sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (barne) estaliz.

...

1.3.6.– Establezimendu, espazio edo lokalen titularrek bermatu beharko dute beren espazioetan bete egiten dela betebeharrak. »

#### **Ordutegi orokorra, kiroldegiko arduraduna egongo dena:**

- Astelehen, astearte, ostegun eta ostiralean: 17:00-21:00
- Asteazkenetan: 17:00-21:30
- Larunbatetan: 16:00-20:00
- Igandeetan: 09:30-13:00

**OHARRA:** gainontzeko jarduera eta ekintza baimenduak beraien ordutegia izango dute eta arduradun edo antolatzaileek, udalaren baimenarekin eta ezarritako protokoloarekin egingo da.

**Kiroldegiko arduradunek bermatu beharko dute eskuak garbitzeko gel hidro alkoholikoa eta desinfektatzailea badagoela. Eta ez dagoenean kargatu bakoitzaren aparatuak.**



Esp. kodea: 2020AAAA0008

Gaia: UDAL ZERBITZUEN IREKIERARAKO PROTOKOLOA COVID19 DELAKOAREN ONDOREN

## **2. ERAIKINAREN ERABILERA OROKORRA:**

Eraikin honetan jarduera edo ekintza arautu eta baimendutakoak bakarrik onartuko dira. Atea itxita egongo da eta bakarrik aurrez adostutako ekintza edota jardueretako erabiliko da. Eta beti egongo da arduradun izendatu bat.

**Komunak:** hauen erabilera zaindua izan behar da eta beharrezko ikusten baldin bada norberak desinfektatzeko aukera egongo da flixflixarekin

**Aldagelak:** itxita mantenduko dira.

### **Erabiltzaileak orokorrean bete beharrekoa:**

- Aurrez udalarekin adostu behar dira, edozein jarduera edo ekintzetako, ordutegiak, egutegiak eta partehartzaile kopurua.
- Baimendutako ekintzetarako arduradun bat izendatuko da, araudia ulertzen eta onartzen duena, eta ezarritako araudiaren betetzea zainduko du.
- Sartu-irtenak zaindu behar dira jendea ez pilatzeko.
- Gel hidroalkoholiko dosifikatzaileak egongo dira bai kiroldegiko sarreran, bai gimnasioko sarreran.
- Sarreran ezin da jendea egon.
- Dagoen araudia bete beharko da, maskarak eta distantziei dagokiena zein jarduera zehatzetarako ezarrita dagoena.
- Kiroldegiko arduradunek esaten dutenari kasu egin beharko zaio. Edo dagokion ekintza edota jardueraren arduradunari.
- Aforoa errespetatu beharko da (atean jarriko da)
- Gimnasioan sartu aurretik oinetakoak aldatu beharko dira.
- Ez da ikuslegorik egongo harmailetan, udalak propio baimentzen ez badu.
- Kantxa eta gimnasioa garbi utzi beharko dira erabili ostean.
- Kantxa eta gimnasioa txukun mantendu behar dira eta materiala baimena dutenek bakarrik utzi ahal izango dute bertan, adostutako lekuan, eta txukun jasota.

### **Klaseak emateko:**

- Irakasleak klase bakoitzean nor egon den zerrendatuko du eta gutxienez 15 egunez gorde beharko ditu zerrendak.
- Erabiltzaileek beren jarduerarako behar duten kirol arropa jantzita etorriko dira kiroldegira.
- Egunean ekarri eta eraman behar dute bai ikasleak eta irakasleek erabiltzen duten materiala.
- Ezingo da materiala konpartitu. Materiala konpartitzea nahitaezkoa bada, erabili aurretik eta ostean desinfektatu beharko da.
- Erabiltzaileek ez dituzte botilatxoak, eskuoihalak edo indibidualiza ez daitekeen edozein kirol-material (peto, banaka erabiltzeko baloiak, stik, bate, eskularruak,...) partekatuko, jarduerarako ezinbestekoa ez bada.
- Klase mota bakoitza osasun sailetik ezarrita dagoen araudiaren arabera emango da.



Esp. kodea: 2020AAAA0008

Gaia: UDAL ZERBITZUEN IREKIERARAKO PROTOKOLOA COVID19 DELAKOAREN ONDOREN

### **Eskola:**

- Eskolak adostutako ordutegian eta egutegi ofizialaren arabera erabili ahal izango du kiroldegiko kantxa.
- Arau orokorrak, aforoa barne, errespetatu beharko ditu.
- Erabiltzen duen ordutegian bere ardura izango da arauak betetzen direla bermatzea.
- Irakasleak klase bakoitzean nor egon den zerrendatuko du eta gutxienez 15 egunez gorde beharko ditu zerrendak.
- Eskolak bere protokoloa izan beharko du eta udalean aurkeztu beharko du emango dion bi erabilera motak nola egin behar dituen protokolo zatia:
  - \* Gorputz Hezkuntza klaseak
  - \* Euria egiten baldin badu jolas-ordua eta bazkalostea
- Beste edozein erabilera edota baimendutako ordutegiaz aparteko erabilera udalarekin adostu beharko da.
- Kiroldegira/Kantxara sartu irteerak lasaiak eta pilaketak ekidinaz egin behar dira.
- Ezingo da bertan materialik utzi ez baldin bada aurretik adosten.
- Eta adostekotan beti leku berdinean eta ondo jasota utzi beharko da erabili ostean.
- Harreman zuzena mantenduko da eta informazio zuzena elkarbanatuko dute eskola eta udalak.

### **Eskola kirola:**

- Adostutako ordutegian eta egutegi ofizialaren arabera erabili ahal izango du kiroldegiko kantxa.
- Arau orokorrak, aforoa barne, errespetatu beharko ditu.
- Erabiltzen duen ordutegian bere ardura izango da arauak betetzen direla bermatzea.
- Elkarreak bere protokoloa izan beharko du eta udalean aurkeztu beharko du.
- Irakasleak klase bakoitzean nor egon den zerrendatuko du eta gutxienez 15 egunez gorde beharko ditu zerrendak.
- Eskola kirolerako dagoen araudia errespetatu beharko dute begiraleek.
- Kiroldegira/Kantxara sartu irteerak lasaiak eta pilaketak ekidinaz egin behar dira.
- Ezingo da bertan materialik utzi ez baldin bada aurretik adosten.
- Eta adostekotan beti leku berdinean eta ondo jasota utzi beharko da erabili ostean.
- Asistentziak kontrolatuko dira klase bakoitzean.
- Harreman zuzena mantenduko da eta informazio zuzena elkarbanatuko dute eskola kiroleko arduradunak (bat izendatu beharko da) eta udalak.



Esp. kodea: 2020AAAA0008

Gaia: UDAL ZERBITZUEN IREKIERARAKO PROTOKOLOA COVID19 DELAKOAREN ONDOREN

---

**Lokala bertan daukaten elkarteak (pelota, dantza):**

- Lokalak bertan dituzte Pelota eta Dantza elkarteek.
- Lokalak gainontzeko gauzetatik aparte daudenez, beraien beharren arabera erabilera egin dezakete, baina bakoitzak bere lokalarena bakarrik. Kantxa edo gimnasioa erabiltzeko aurrez baimenduta egon behar da. Berdin da libre dagoen edo ez.
- Aforoa errespetatu beharko da (atean jarriko da)

**Aforoak:**

- KANTXA: 190 pertsona
- GIMNASIOA:
  - o Etzanda egoteko ekintzetan: 9 pertsona
  - o Zutik egoteko ekintzetan: 17 pertsona
- PELOTAKO ELKARTEKO GELA: 4 pertsona
- DANTZA TALDEKO GELA: 4 pertsona

**Kirol jarduerak (klaserik gabe,...futbito, frontenis,...):**

- Ezin da ikuslerik egon.
- Aldagelak ezin dira erabili.
- Ateak itxita egingo da jarduera.
- Erabili beharreko materiala norberak edo taldeak ekarri beharko du eta gero etxera eraman.
- Kirol bakoitza dagokion COVID19 protokoloaren arabera egin beharko da.

Aramaion, 2020ko irailaren 24an.